

KOSTU EGITURA

Gure enpresa aurrera eramateko hainbat kostu izango ditugu:

1. Janaria erostea

- Gure zerbitzua azken finean elikagaiak saltzea denez, aurretik elikagai horiek erosi egingo ditugu; ez dira izango guk ekoitzitakoak. Janariaren gehiengoa baserriko abertzaleei erosten saiatuko gara. Azkenean, saltzen ari garena osasuntsua da, eta zer hobeto zuzenean jasotzen dugun elikagaiak baino. Hala ere, kasu batzuetan super merkatu ezberdinetan ere erosiko ditugu produktuak.
- Kostu hauek ALDAKORRAK izango dira. Egia da printzipioz produktu berak salduko ditugula pack guztietan, baina baliteke elikagaien prezioa aldatzen joatea. Eta gainera, tarteka erosten joango garenez, aldakorra da.

2. Banaketak (garraioa)

- Hasieran, 2 kamioi erosiko ditugu. Alde batetik baserrietatik elikagaiak ekartzeko eta beste alde batetik elikagaiak banatzeko.
- Erosi beharko diren elikagaien kantitatea aldatzen joan daitekeenez eskarien arabera, baserrirako joan-etorrien kostua ALDAKORRA da baina astero egin behar direnez etxera bidaltzeko garraioak, hauen kostuak FINKOAK dira.

3. Soldatak

- Langileak:
 - 5 bat gidari izango ditugu banaketak egiteko
 - Lokalean 10 lagun izango dira lanean egongo direnak
 - Kontabilitaterako 3 pertsona
 - Bezeroen atentzioa: 2 pertsona
 - Gu, jabeak, etxetik lan egin dezakegu (deiak egiten, hornitzaileekin hitz egiten, dena berrikusten...) Lokalean ere nohizbehinka lagunduko dugu.
- Soldata guzti hauek FINKOAK izango dira, baina jabegoen kasuan, irabazien arabera izango ditugunez gure soldatak edo etekinak, kasu honetan ALDAKORRA izango litzateke. 4 jabe garenez, enpresaren %20 banatuko dugu, bakoitzak %5 izanik.

4. Azpiegiturak

- Lokalean zenbait altzari edukiko ditugu; baina ez asko, izan ere, batez ere kaxak prestatu eta gordetzeko delako. Horregatik, hainbat mahai, zenbait aulki eta apal batzuk besterik ez dira egongo. Kostu hauek FINKOAK izango dira. Hala ere, janaria mantentzeko 3 bat hizozgailu handi erosiko dugu. Kostu hau FINKOA da baina erabilerak elektrizitatea suposatzen duenez, kostu ALDAKOR bat ere bada. Horrez gain, inpresora, ordenagailu batzuk eta lanerako materiala beharko dugu.

Zuzenak: produktuen erosketa, altzariak, lokala, salmenta komisioak, garraioa

Zeharkakoak: soldata, elektrizitatea, publizitatea (eta beste gauza garrantzitsu bat, *denbora*)

Ekonomikoak

Bestelakoak (ingurumen kostuak eta sozialak)

Inbertsio kostua

Aurretik aipatu bezala, hasieran inbertsio bat egin beharko degu enpresa hasteko.

Horregatik:

Bankuari kreditu bat eskatuko diogu (50.000€-ko kreditu bat). Kantitate honek urte baterako lokala, kamoia erosteko, altzariak erosteko, elektrizitatea ordaintzeko eta soldatak ordaintzen hasteko aukera emango digu.

Urte bete horretan dirua irabazten hasiko gara eta urteko irabazien %40a enpresan beran inbertituko da erosi beharrekoa erosteko.

Kontuan hartu behar da, gure enpresa txiki hasiko dela, lokal ez oso handi batean, langile gutxirekin eta ipinitako gastuak hasiera batean izango direnak dira. Enpresa hazten doan heinean, gure kostuak ere handitu egingo dira.